



ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL

VIII MANDATO

VIII. AGINTALDIA

Serie **B** **INFORMACION, CONTROL Y DIRECCION POLITICA**
IV **PROPOSICIONES NO DE NORMA**

BARRI-EMOTEA, KONTROLA ETA POLITIKA-JOKERA **B** **Saila**
ARAUZ BESTEKO SALOAK **IV**

Número 29 (c)

Bilbo, 2007.eko azaroaren 13a
Bilbao, 13 de noviembre de 2007

29 (c) Alea

Relativa a la inclusión de cláusulas sociales en los procedimientos de contratación de la Diputación Foral

PRESIDENCIA DE LAS JUNTAS GENERALES

Las Juntas Generales de Bizkaia, en su Junta General Ordinaria celebrada el día 12 de noviembre del año en curso, acordaron aprobar la Proposición No de Norma formulada por el Grupo Socialistas Vascos, relativa a la inclusión de cláusulas sociales en los procedimientos de contratación de la Diputación Foral.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 86 del vigente Reglamento, se ordena su publicación.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 13 de noviembre de 2007.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Madariaga Ugarte**.

INES NEREA LLANOS GOMEZ, Secretaria Primera de las Juntas Generales de Bizkaia,

CERTIFICO:

Que la Junta General, válidamente celebrada el día doce de noviembre de dos mil siete, en el Salón de Sesiones de la Casa de Juntas de Gernika, acordó aprobar la Proposición No de Norma formulada por el Grupo Socialistas Vascos, relativa a la inclusión de cláusulas sociales en los procedimientos de contratación de la Diputación Foral, conforme al siguiente texto:

“1º Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral a que utilice la contratación pública como un eficaz instrumento de lucha contra la exclusión social, en sus diversas manifestaciones, y de incorporación laboral de personas con discapacidad, o especiales dificultades de acceso al empleo, de forma que contribuya a reducir el riesgo de exclusión. Para ello, en la medida permitida por el ordenamiento le insta a que incorpore cláusulas sociales en el procedimiento de contratación y en la ejecución de los contratos.

Foru Aldundiaren kontratazino-prozeduretan gizarte-klausulak sartzeari buruzkoa

BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARITZA

Foru Aldundiaren kontratazino-prozeduretan gizarte-klausulak sartzeari buruz Sozialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Beste Saloa onartzea erabagi eban Bizkaiko Batzar Nagusiak aurtengo azaroaren 12an izandako Agizko Batzarrean.

Argitaratzea agintzen da, indarrean dagoan Araudiaren 86. atalean zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2007.eko azaroaren 13an.- Batzar Nagusietako Lehendakariak, **Ana Madariaga Ugartek**.

Nik, INES NEREA LLANOS GOMEZ-ek, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak, hurrengo hau

EGIAZTATZEN DOT:

Agizko Batzar Nagusiak, Gernikako Batzarretxean bi mila eta zazpigarreneko azaroaren hamabian balio osoz egindako bileran, Foru Aldundiaren kontratazino-prozeduretan gizarte-klausulak sartzeari buruz Sozialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Beste Saloa onartzea erabagi ebala, hurrengo era honetara:

“1.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutesie Foru Aldundiari kontratazino publikoa, aldaera guztietan, erabili dagia-la gizarte-bazterkeriaren aurka egiteko eta ezintasundun pertsonak, edo lanean hasteko arazo bereziak daukiezanak, laneratzeko baliapide eraginkor lez, gizarte-bazterkerian erortzeko arriskua gitxitzen lagundurik. Horretara, araupideak izten dauan neurrian, kontratuak egiteratzerakoan eta kontratazino-prozeduretan gizarte-klausulak sartzeko eskatzen deutesie.

2º Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral a fomentar la incorporación laboral de personas excluidas o en riesgo de exclusión del mercado laboral en empleos de calidad, mediante la incorporación de las cláusulas sociales, arriba mencionadas y facilitando por un lado mercado a las empresas de inserción; y por el otro implicando a las empresas ordinarias lucrativas en el objetivo de la inserción sociolaboral –en semejanza a la reserva del 2% para personas con discapacidad.

3º Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral a que constituya una Comisión Técnica en la Dirección de Contratación, en la que deberán estar integrados los servicios jurídicos de los Departamentos de Empleo y Formación, Acción Social y Hacienda para que analice y estudie el modo óptimo para introducir las cláusulas sociales en la adjudicación y en la ejecución de los contratos que haga la Diputación sin salir de la legislación vigente, y que a su vez determine las medidas jurídicas, financieras y organizativas que sean necesarias para aplicar este acuerdo adoptado, así como su coexistencia con otras políticas públicas, como la medioambiental, la de seguridad y salud laboral, la de igualdad de la mujer y el hombre, las condiciones y calidad de empleo, la normalización del euskera, también actuables desde la Administración Pública.

4º Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral a que, en el período más corto posible, envíe a esta Cámara para su cumplida información los documentos elaborados por la Comisión Técnica a que se alude en el punto 3.”

Y para que así conste, expido la presente certificación, con el Visto Bueno de la Excm. Sra. Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, a doce de noviembre de dos mil siete.

La Secretaria Primera,
Inés Nerea Llanos Gómez

Vº Bº La Presidenta,
Ana Madariaga Ugarte

2.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deusie Foru Aldundiari baztertutako pertsonen eta lan-merkatutik baztertzeko arriskuan dagozanen laneratzea suspertu dagiala kalitatezko lanpostuetan, hain zuzen be goian aitatutako gizarte-klausulak sartuta, alde batetik gizarteratze-enpresei merkatua erraztuz eta beste alde batetik irabazi asmoa daukien enpresak gizarteratze-prozesuetan inplikatur, ezintasundun pertsonen gordetako lanpostuen %2ko neurriaren antzera jokatuta.

3.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deusie Foru Aldundiari Batzorde Teknikoa eratu dagiala Kontratazino Zuzendaritzan —eta hor barruan egon daitezala Lana eta Trebakuntza Saileko, Gizarte Ekintza Saileko eta Ogasuneko legegileritza-zerbitzuak— aztertu dagian zein dan modurik egokiena Aldundiaren kontratuen esleipenetan eta egiterapenetan gizarte-klausulak sartzeko indarrean dagoan legeditik urten barik, eta hartutako erabagi hau bideratzeko behar izan daitezkan neurri juridikoak, finantzieroak eta antolakuntzakoak hartu dagiazala, hori guztiori beste politika publikoakaz bat etorrita, esaterako ingurumenekoa, lan segurtasun eta osasunekoagaz, gizonezkoen eta andrazkoen aukera berdintasunekoagaz, enpleguaren baldintza eta kalitatearenagaz, euskeraren normalkuntzakoagaz... danak be Administrazino Publikoek aintzat hartu beharrekoak diralako.

4.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deusie Foru Aldundiari aurreko 3. atal horretan aitatutako Batzorde Teknikoak egindako dokumentuak bialdu dagiazala Batzar Nagusiotara, jakinaren ganean egon daitezkan.”

Eta erasota geratu daiten egiten dot egiaztagiri hau, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari Andra Txit Gorenaren On-Eritxiagaz, Bilbon, bi mila eta zazpigarreneko azaroaren hamabian.

Lehenengo Idazkaria,
Inés Nerea Llanos Gómez

O.E.: Lehendakaria,
Ana Madariaga Ugarte